**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **04. Kultura**<br>**04. *Cultura*** | **05.** Kultur Ekintza<br>**05.** *Acción Cultural* | **450.101** Kultura Zabalkundea<br>**450.101** *Extensión Cultural* |

Kultura Sailak, “Kultura Zabalkundea” izeneko programaren bidez, kultura-jarduera sustatu nahi du lurralde historikoan. Horretarako, gainerako kultura-agente publikoek (udalak kasu) nahiz irabazi-asmoak dituzten edo ez dituzten agente pribatuek (elkarteak, fundazioak eta enpresak) egindako ekimenak babestuko dituzte. Era berean, programa horren bidez kultura-sorkuntza, kulturaren hedapena eta gainerako kultura-agenteekiko aholkularitza eta babesa sustatzeko ekintzak egingo dira, gizartean parte hartzeko oinarrizko elementu gisa.

Honakoak dira lortu nahi diren helburu nagusiak:

a. Sorkuntza artistikoa babestea, kultura garatu eta modernizatzeko oinarrizko elementu gisa.

b. Kulturaren hedapena bultzatzea, kultura Bizkaiko herritarrengana hurbiltzeko asmoz.

c. Udalei babesa eta aholkularitza ematea lurraldean kultura-agente garrantzitsuak diren aldetik, kultura-jarduera sustatzeko orduan.

d. Bizkaiko kultura-sarea sustatzea, irabazi-asmoak dituzten edo ez dituzten kultura-agente pribatuek (elkarteak, fundazioak, enpresak eta profesionalak) planteatzen dituzten ekimenak babestuz.

Horregatik, “Kultura Zabalkundea" delako programa honako atal nagusiek osatzen dute:

1. Sorkuntza artistikoari babesa.

Kulturaren garapenari, hizkuntza estetiko berrien sorkuntzari eta, azken finean, sorkuntza artistikoari babesa ematea da aginte publikoek egin beharreko zereginetako bat. Administrazioari dagokio kulturako I+G+B (Ikerketa+Garapena+Berrikuntza) delakoaren ardura hartzea, merkatuak eta gizarteak horri aurre egin ezin diotenean. Hori dela kausa, eta

El Departamento Foral de Cultura, a través del programa “Extensión Cultural”, pretende impulsar la actividad cultural en el Territorio Histórico apoyando las iniciativas que surjan del resto de los agentes culturales, tanto públicos, como los ayuntamientos, como privados con y sin ánimo de lucro (asociaciones, fundaciones y empresas). Asimismo, desde el propio programa se van a realizar acciones encaminadas a favorecer la creación cultural, la difusión de la cultura y el asesoramiento y apoyo al resto de los agentes culturales, como elementos básicos de participación de la sociedad.

Los principales objetivos que se pretenden alcanzar son:

a. Apoyo a la creación artística como elemento básico de desarrollo y modernización de la cultura.

b. Fomentar la difusión cultural en aras a acercar la cultura a la ciudadanía vizcaína.

c. Apoyar y asesorar a los Ayuntamientos, como agentes culturales relevantes del Territorio a la hora de fomentar la actividad cultural.

d. Fomentar el tejido cultural vizcaíno apoyando las iniciativas que planteen los agentes culturales privados, con y sin ánimo de lucro (asociaciones, fundaciones, empresas y profesionales).

Por ello, el programa “Extensión Cultural” lo configuran los siguientes grandes apartados:

1. Apoyo a la creación artística.

El apoyo al avance cultural, a la generación de nuevos lenguajes estéticos y en definitiva a la creación artística, es uno de los cometidos a realizar por los poderes públicos. Es a la Administración a la que corresponde hacerse cargo del I+D+I cultural, en tanto en cuanto el mercado y la propia sociedad no lo puedan sostener. Por ello,

helburu honetan aurrera egiteko asmoz, honako ekintzak betetzea aurreikusi da:

Diru-laguntzak eta bekak ematea sorkuntza artistikoaren eremu desberdinetan, kalitatezko prestakuntza espezializatuari babes garrantzitsua emateko.

Arte Plastikoen eta Ikus-entzunezkoen Erakusketa Ibiltaria (Ertibil) antolatzea, batetik Bizkaiko artista gazteen sorkuntza babesteko, eta, bestetik, horiek ezagutzera emateko, Bizkaiko udalen laguntzari esker lurralde osoan antolatzen diren erakusketen bidez.

Bizkaiko udal desberdinen artean koordinatu diren eta arte garaikideari buruzkoak diren erakusketen antolakuntza sustatzea.

2. Kulturaren hedapena sustatzea.

Kultura-demokratizaziorako politikak, kultura herritarrengana hurbiltzeko helburua duten aldetik, botere publikoen oinarrizko jarduera-ardatza dira. Horien bidez, herritarrek kultura eskuratzeko duten bidea erraztu nahi da, beren inguru geografikoa eta maila ekonomikoa edozein direla ere. Horren harira, honako jarduera hauek planteatu dira, besteak beste:

Bizkaiko kultura-agente desberdinek antolatu dituzten eta kultura-interesa duten programen antolakuntza erraztea. Horretarako, Bizkaiko udal desberdinek eta elkarteen munduak antolatutako proiektuak finantzatuko dira. Ondorioz, kultura-eskaintza anitza eskaini ahalko da gaiaren eta kultura-sektorearen ikuspuntutik eta, geografia-aldetik, eskaintza orekatuta egongo da lurralde osoan zehar.

Eszena-ikuskizunen kasu zehatzean, SAREAn (Euskal Antzokien Sarea) sartuta dauden udal-antzoki desberdinetako programazioa babestuko da eta urte osoan zehar kalitatezko eszena-eskaintza emango da Bizkaiko herri desberdinetan.

y en aras a avanzar en este objetivo, se tiene previsto llevar a cabo las siguientes acciones:

Concesión de becas y ayudas en los diferentes campos de la creación artística, como apoyo importante a una formación especializada y de calidad.

Organización de la Muestra Itinerante de Artes Visuales y Audiovisuales (Ertibil), que aúna el doble objetivo de apoyar la creatividad de los jóvenes artistas vizcaínos por un lado, y por otro, darlos a conocer a través de las exposiciones que se organizan por todo el Territorio con el apoyo de los ayuntamientos de Bizkaia.

Fomentar la organización de exposiciones coordinadas entre diferentes municipios de Bizkaia, que versen sobre arte contemporáneo.

2. Fomento de la difusión cultural.

Las políticas de democratización cultural, en su objetivo de acercar la cultura a la ciudadanía, son un eje de actuación básico de los poderes públicos. Mediante ellas, se pretende facilitar el acceso a la cultura de la ciudadanía, independientemente de su entorno geográfico y su nivel económico. En este sentido se plantean, entre otras, las siguientes acciones:

Facilitar la organización de programas culturales de interés que sean organizados por los diferentes agentes culturales de Bizkaia. Para ello, se financiarán proyectos organizados tanto por los diferentes ayuntamientos de Bizkaia, como por el mundo asociativo. De esta manera, se posibilitará una mayor oferta cultural variada desde el punto de vista de la temática o sector cultural y geográficamente equilibrada por todo el Territorio.

En el caso concreto de los espectáculos escénicos, se apoyará la programación de los diferentes teatros municipales integrados en SAREA (Red de Teatros Vascos), posibilitando a lo largo de todo el año una oferta escénica de calidad en diferentes municipios de Bizkaia.

Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) izenekoaren kudeaketatik eratorritako betebeharrak beteko dira, eta, era berean, musikaren alorrean, Bizkaiko Jaialdiko programaren antolakuntzari babesa emango zaio, lurraldeko udal desberdinekin batera. Aipatu programa horretan hamarkada bat musika-programazio baino gehiago daude.

Se atenderán las obligaciones derivadas de la gestión de la Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) y asimismo, en el aspecto musical, se continuará apoyando la organización junto con diferentes ayuntamiento del Territorio, del programa Bizkaiko Jaialdiak, que engloba a más de una decena de programaciones musicales.

3. Babesa eta lankidetza udalekin.

3. Apoyo y colaboración con los ayuntamientos.

Udalak lehen mailako kultura-agenteak dira Sailarentzat, eta, beraz, babes- eta lankidetza-harremana izan behar da beraiekin. Horren harira, honako jarduera hauek planteatu dira:

Los ayuntamientos suponen para el Departamento, unos agentes culturales de primer orden, con los que es necesario mantener una relación de apoyo y colaboración. En este sentido se plantean las siguientes acciones:

Udalen artean eta Udal eta Sailen artean koordinazioa sustatzea, Kulturgintzan foroaren bidez. Foro horretan Bizkaiko udalak sartzen dira, eta kulturan koordinazioa eta berrikuntza sustatzeaz gain, aholkularitza ematen zaie hala eskatzen dute udalei.

Fomentar la coordinación intermunicipal y Departamento–Ayuntamientos, mediante el foro Kulturgintzan, que engloba a los ayuntamientos de Bizkaia, y que tiene por objetivo fomentar la coordinación y la innovación en cultura, así como facilitar la asesoría para los ayuntamientos que lo soliciten.

Kultura-jarduera erraztea Bizkaiko udal desberdinetan. Horretarako, azpiegituretako beharrak eta lurraldean antolatzen diren kultura-proiektu interesgarriak diruz lagunduko dira. Udal txikien kasuan, duten egoera berezia kontuan hartuta, Sailak ahalegin ekonomiko berezia egingo du horiek babesteko.

Facilitar la actividad cultural en los diferentes ayuntamientos de Bizkaia, apoyando económicamente sus necesidades infraestructurales, así como los proyectos culturales que organicen de interés para el Territorio. En el caso de los ayuntamientos pequeños, y teniendo en cuenta su especial situación, el Departamento realizará un esfuerzo económico especial en su apoyo.

Gainera, SAREAren bidez udaletako eszena-programazioari laguntza emango zaio, eta, ondorioz, geografia aldetik orekatuta dagoen eta maila ona duen eszena-eskaintza erraztuko da.

Se continuará aportando a la programación escénica de los ayuntamientos a través de SAREA, con lo que se facilitará una oferta escénica de nivel y geográficamente equilibrada.

4. Bizkaiko kultura-sarea sustatzea.

4. Fomentar el tejido cultural vizcaíno.

Gizartean kultura-sare trinkoa eta aktiboa izatea lurralde baten kultura-mailaren adierazlea da, gizarte-dinamika egokiaren bermea izateaz gain. Horren harira, eta kontuan hartzen badugu

La existencia de un tupido y activo tejido cultural en la sociedad civil es un exponente del nivel cultural de un territorio, así como garantía de una adecuada dinámica social. En este sentido, y siendo

administrazioa ez dela kultura-agente bakarra, ordezko lana egiten duen agentea baizik, kultura-agente pribatuak babestu eta sustatu gura dira, gizarteko bizitasunaren adierazle gisa. Horretarako, kultura-agente pribatuek (elkarteak, fundazioak, enpresak eta profesionalak) aurkezten dituzten proiektuak diruz lagunduko dira, baldin eta lurraldearentzat interesa badute. Gainera, proiektuok martxan jartzeko babesa eta aholkularitza emango da.

conscientes que la Administración no es el único agente cultural, sino que lo que le corresponde es una labor subsidiaria, se apuesta por apoyar y fortalecer a los agentes culturales privados, como exponentes de la vitalidad de la sociedad civil. Para ello, se apoyarán económicamente los proyectos presentados por los agentes culturales privados (asociaciones, fundaciones, empresas y profesionales) que sean de interés para el Territorio, así como se les ofertará apoyo y asesoría para su funcionamiento.